



La Fundación
SAN PRUDENCIO

**2023ko La Fundación San
Prudencioaren Meritu Akademikoaren
“Zure lorpenak aitortu nahi ditugu”
sariaren oinarriak**

2023KO MERITU ACADEMIKOAREN SARIKO "ZURE LORPENAK AITORTU NAHI DITUGU" OINARRIAK

Xedea	3
Nola parte hartu	3
Baldintzak eta epea	3
Hautagaitzak egiaztatzea.....	4
Sariaren zenbatekoa	4
Saria ematea	5
Konfidentzialtasun	5

Xedea

Sari honen bidez, La Fundaciónen ahaleginaren kultura babestu, saritu eta bultzatu nahi dugu, eta La Fundaciónen titularren seme-alaben eta titularren beraien dedikazioa eta lorpen akademikoak balioetsi eta aintzatetsi nahi ditu.

Nola parte hartu

Sari hauek titularrei edo 24 urteraino duten onuradunei zuzenduta dago, ahalik eta nota hoberena daukaten nota hoberena atera dute heziketa-ziklo bakoitzean:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
- Batxilergoa
- Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa (USE)
- Erdi mailako heziketa zikloa
- Goi mailako heziketa zikloa
- Unibertsitate gradua

Baldintzak eta epea

- 2022/2023 ikasturtean amaitutako heziketa zikloan 8,50eko edo gehiagoko batez besteko nota duten 24 urte edo gutxiagoko zuzeneko onuradunak aurkeztu ahal izango dira sari horietara.
- Familia unitate berean bi titular badaude, horietako batek soilik eskatu ahal izango du seme edo alaba beraren parte hartzea.
- Honako prozesu hau jarraituz izan zaitezke hautagai:
 - Bete behe-rago argitaratuta dagoen formularioa www.lafundacion.com orrialdean.
 - Formularioa betetzeko epea 2023/08/28an amaitzen da.

Hautagaitzak egiaztatzea

Heziketa-ziklo bakoitzerako jasotako eskabide guztiak ikusi ondoren, La Fundaciónek batez besteko nota altuena duen hautagaiari eskatuko dio egiaztatzea, non bi dezimalekin agertuko baiten lortutako batez besteko nota.

Egiaztigiri hori Ikasgunean eska daiteke: <https://ikasgunea.euskadi.eus/es/> edo ikastetxean bertan.

Sariaren zenbatekoa

Heziketa ziklo bakoitzeko irabazleari, La Fundaciónek laguntza ekonomiko bat emango dio, hezkuntza kostuak ordaintzen laguntzeko.

- Heziketa ziklo bakoitzeko irabazle bakoitzari laguntza bana emango zaio.
 - Heziketa ziklo berean batez besteko nota altuen berbera duten 2 eta 5 hautagai bitartean aurkezten badira, 5 laguntza emango dira gehienez.
 - Heziketa ziklo berean batez besteko nota altuen berbera duten 5 hautagai baino gehiago badaude, guztien artean banatuko da laguntza.
-

Laguntza hau **Meritu Akademikoaren Laguntzan (esteka)** kontsulta dezakezu.

Meritu Akademikoaren Sariaren deialdia urtero egiten da eta saria publikotasun-, lehia- eta objektibotasun printzipioak betez ematen da.

La Fundaciónek beretzat gordetzen du sari kopurua zabaltzeko edota aldatzeko eskubidea, baldin eta aitortza merezi duten eta interes berezikoak diren hautagaitzak baldin badaude.

Hautagaitza irabazleak La Fundación San Prudencioren webgunean argitaratuko dira.

Saria eman gabe gera daiteke.

Saria ematea

Sariak banatzeko ekitaldia publikoa izango da, eta zehazten den egunean egingo da. Ekitaldi horretan, sariak jasotzen dituzten pertsonen merituen berri emango da.

Konfidentzialtasun

Datu guztiak konfidentzialki tratatuko dira. Nolanahi ere, La Fundación San Prudencio-ak beretzat gordetzen du hautagaitzak eta haien irudiak sare sozialen, webguneen, artikuluen, argitalpenen eta prentsaren bidez argitaratzeko, erakusteko eta/edo zabaltzeko eskubidea, bai eta irabazleen izenak eta hautagaien ezaugarri orokorrak ere, parte-hartzaileek hautagaitza entregatzeko unean sinatzen duten dokumentuan jasotzen den bezala.